



ILEROKO ALDIZKARI EDERGAÏDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—:	IX Urtea	1927 ^{ko}	Urila	106 Zenbakia	:—
----	----------	--------------------	-------	--------------	----

AÑOSARIO SANTUA



ROSARIOA esaten erakutsi zigun Domingo Santuak; Santuari befiz, Andre Mariak berak. Amairugafengo eunki edo sigloan Albigen-seak zeritzan ereje batzuek kalte gaitza egiten zuten Prantzian: gurutzeak autsi, elizak bota, apaizak il, eta abar.

Eliza Ama Santuak kalte auek kendu naian, biali zituan misiolariak. Oken artean ospatsue-nak izandu ziran Osmako Gotzaia eta bere lagu-na Domingo Guzmangoa.

Egin zuten al guzia biek; baño lagun gutxi beraganatzen zirala ekusirik, Domingok itzuli zituan begiak ereji guziak pofokatzeko indaia eta eskua zuan Jain-koaren Amarengana.

Entzun zion Mariak, eta agertzen zitzayolak, poz aundia eman zion, esanik: «Badakizu Trinitade txit Santuak, Agur Mariaren bidez goratu zuala gizadi galdua; nai baduzu, geroztik, biotz gogoñak be-rastu, ara nola egin bear duzun.» Erakutsi zion añosarioa, eta aguro

ezagutu zan zeruko erakutsaldia zela. Milaka bekatari etoñi ziran Eli-zako aterpera.

Domingo Santuak bakañik, 100.000 eta geyago bekatari irabazi zituan bizi zan bitartean.

Eztizuet nik gaur esango nola eñezatzen dan afofarioa; uste dut jakiñen duzuela; baño ia etxè askotan ezta esaten, eta are gutxiago, gurasoak, umeak, imirabeak, au da, etxeko guziak batean bildurik. Eta ola jafaituaz bildur naiz aguro geyenai aztuko ez ote zayen.

Ama Birjiñaren maitasunez ezpada ere, zure onez bear ziñuke gorde otoitz eder au.

Bein esan omen zion Andre Mariak berak Hoyos Aitari: «Oraindik ezta galdu afofario-zalea ziñez izandu denik, eta aufera ere ezta galduko.»


Gañera induljentzi edo barkamen asko irabazten dira bere bidez.

Kruziferoen afofarioarekin, 500^{ko} barkamena baduzu, Aita gure edo Agur Mari bakotxengatik.

Ez galdu bada oitura eder au. Galtzen asi bazera, beñiz atzera sutu zaitez, zeruko Amari aiñ poz aundia ematen dion otoitz au beñe-re ez uzteko.

A. I. M. A.

Loinaz'ko Martin Deuna



IPUZKOAREN eta Euskalefi guziaren edergafirik bikañenetakori, mila bosteun da irurogeita seigafen (1566) urtean jaio zan, Beasaingo Amunabafor deritzan basetxean. Eliz-gizonetarako ikasten asi ta gero, Asistar Prantzisko Deunaren Ordenan sartu zan eta ogeitabost urtetik ogeitaseira bitartean egin zan apaiz. Gure Loinazko Martiñek animak irabazten lan egiteko eta Jesukristorengatik bere bizia emateko gogo bizia zuan eta

eskar ori egunero eskatzen zion gure Jaunari. Era ona izan zuan bezin laister Pilipiñetara joan zan (1594) eta bi urten buruan (1596) andik Japongo mixioetara bidali zuten bere nagusiak; eta mila bosteun da larogeitamazazpigafen (1597) urteko otsailaren bostean Nagasaki deritzan eñian, Jesukristorengatik esku, oñ eta lepotik burnizko ustaiatz gurutzeari loturik eta alboetatik sorburuetara bi atzamakilaz zulaturik il zan beste ogetabost lagunekin batean, ogetamar urte ta erdietan. Mila seireun da ogeitazazpian (1627) zori ondutua izan zan eta mila zortzireun da irurogetabian (1862) deuntzat (*santutzat*) iragaña.

Aurten dira irureun urte Aita Santu Urbano zortzigañenak Loinazko Martin Deuna ta bere lagunak zorionekotzat eman zituela; eta gertaera go-




Loinaz'ko Martin Deuna

goangafi ori ospatzeko jai aundiak ditu aurten Beasaingo efiak bere seme maitearen omenez.

Goretsia zu, zorioneko Martin Deuna. Otoitz egiozu Jaunari zure efiaren alde, Euskalefi guziaren alde; eta batez ere!otoitz egin ezazu, zure onbideai dafaizkielarik, sortefi maitetik ufun, Jesukristoren sinismena zabal-tzen dabiltzan misiolari euskaldunen alde.

Ataundar Bonifazio A.

Prantziskar Kaputxinoa.



Loinaz'ko Martín Deunaren ardurapean

(IPUIA)

Albitxuneko Pipixio, amaika urteko mutilkoa, elizako gauzetara oso zaletua zan. Efiko eta inguruetakoa mixio ta elizkizunetara joan nai izaten zuan eta ofetarako goiz jeiki eta ufutira joan beafak etzuen ikaratzan. Bere atsegiñik aundiena apaizai eta praleari laguntzen eta aien *mandatu* txikiak egiten izaten zuan.

Beñ ikusi zuan praie bat izotzetan burutsik eta oñutsik ibiltzen eta jainkozko gizon arek ikutu aundia egin zion Pipixioren biotz samufari. Be-realaxe eman zion praie ari, berak ain maite zuen Loinazko *Aita San Martiñen* antza; eta bera ere alako praiea nola izan ote ziteken asmaketan asi zan. Pipixiok Loinazko *Aita San Martiñ* bezelakoa izan nai zuan; baño beste edozein praletara joateko ere pozik zegoen.

Beñ batean arek praie joan bear zuela esan zuen etxean, eta aitak beizai biali zuan artean, praie joateko gaztegia zala ta. Pipixio gizajoak negar txikien bat egin zuen, aitak praie joaten utziko etzion bildufez.

* *

Andre Kataliñ zeritzan Pipixioren amak Elizarabide aundiko emakumea zan; eta gogoan artu zuen bere mutil-koskoñaren *praie* joateko eskabidea. Etzan, ez, Pipixio amak nai etzelako praie joan gabe geldituko. Aspalditik ari zitzakion andre Kataliñ Jaungoikoari aren zazpi semetatik bat bederik bere mofoitarako artu zezakiola eske. Askotan egiñ oi zion bere buruari: «Ez ote det bada nik nere seme bat apaiz egiñik ikusiko?» Loinazko *Apaiz San Martiñi* eskatu zion zaindu eta zuzendu zezala aren Pipixio Jainkoak nai zuenerako, eta asmo ofetan meza bat *atera* zuen *Aita San Martiñen* aldarean, berak entzuten zuela.


* *

Pipixio amabi urtetara eldu zan eta mofoi bidali zuten Oriabafeko etxe batera. Garai artarako asi zitzakion etsaia erasoka. Osoro onak etziran la-

gunakin elkartuerazi eta gauza txafak ikusi eta aditu zitzaken tokietara eramaten zuen, griña gaiztoak piztu zizkion eta asi zangure mutila, afosko ta *dotorezale* egiñik, bere burua gizontzat artzen: eta ara, urtebete aurretik prale joateko efetzen zebilena, prale izateko itxura aundirik gabe.

* *

Loinazko *Aita San Martiñek* egin zuen bere lana. Urteak joan, urteak etofi, andre Kataliñen seme Pipixio, *Aita San Martin* bezelaxe, Asistar



Prantzisko Deunaren Ordenan sartu zan eta apaiz egin ere bai. Eta mixiotara joan baño len, Beasaingo Eliznagusian izan zan *Aita San Martiñen* aldarean meza ematen, bere zorioneko zaindariari eskefona erakutsi eta garai berean aren bideari zintzo jañaitzeko laguntza eskatzen.

Pipixioren gurasoak pozez zorutzen daude, beartsuak izan afen, beren semea prale eta apaiz egiñik ikusita. Pipixio befiz, bere efiko *Santuaren* antzera, jaiotetxetik ufuti, mixioetan dabiñ, gogorik bizienaz ardi galduak Jaunaren artaldera biltzen.

Zorioneko Martin Deuna
Lagun gaitzatzu zerutik,
Euskalefia aldendu ez dedin
Zeruratzeko bidetik.

EKAIN.



Jesusen Biotzaren bederatzi Ostiralak

Almandoz'tar Jose Luis Jauna.

Erakkin'en.

Nere Jose Luis maitea: Bai gogor zaudela nere esanak ondo betetzeko! Nik nere alegiñak egiten ditut, lufeko batek dezakeneraño, baño zu beti gofa.

Ondo iruditut zitzazkidan zure azkeneko eskutitzean esanak, aietaz beste egunen batean itz egingo ditut, orain entzun zadazu!

Badakizu, eta mila aldiz esan ditut, etzaitela ondo iruitzen gaur gizonak egiten dezutena. Iya, iya elizako eginkizunak utzi dituzute eta emakumeen gauzak omen dira orain bezperak, igande-atsaldeko elizkizunak, ta baita ere Jauna artzea.

Txoratu egin zerate zuek, zuentzat ordun naikoa da, *lufean al ditek*ean *bizitza onena egitea*. ¡Bai ederki dagoala orixe! Etxeko jaun edo senideburu izateko bide ona daramazu.

Zer egin bear ote dezun, diyozu, zuen efiko Apaiz Jaunak, lengo igandian pulpilotik itz egin zuen gayaz.

Oiu aundiyak bota omen zitun, batez ere gizonai adierazteko, bere gogo aundiyena izango litzakela, guztiyak ikustea, datofen iletik asi-ta, Jesusen Biotzaren bederatzi lenengo ostiralak egiten.

Ta afazoi zeukan, nere Jose Luis maitea.

Ori bera iruditzen zait neri ere, gizonentzat otoitz-gai edo deboziyo ori dala jator-jatofena, baño baita ere emakumeentzat.

Badakizu, Jesusen Biotzak Margarita Deunari esan ziyola, iñork zeruratzeke asmatu duan biderik onena ori dala.

Ez gero befiz esan, zure lagunai esan zeniena: ¿Zuri eta niri zer dijoakigu? ¡Oyek emakumeen ta amona xafen gauzak baitira!

Ez, Jose Luis, ez; ona emen Jesusen Biotzak bere maitaleei eskeintzen dizkiyen gauzak:

1.^a Beren estadietan bear dituzten graziak emango dizkiet. 2.^a Beren naigabe guztietan arinduko ditut. 3.^a Beren laguntzale izango naiz bi zi diran bitartean, baño batez ere eriotzako orduan. 4.^a Beren lan guziak bedeinkatuko ditut. 5.^a Pakea bialiko det beren familietara. 6.^a Pekataria neufi gabezko efukitasuna arkituko dute nere Biotzean. 7.^a Beren animaren epeltasuna berotuko det. 8.^a Kristau beroak laxter askozaz obiak egingo ditut. 9.^a Nere irudia jartzen dituzten etxe ta lekuak bedeinkatuko ditut. 10.^a Apaizai biotzak mugitzeko indafa emango diet. 11.^a Nere deboziyoa zabaltzen dutenak nere Biotzean jafiak izango ditute beren izenak eta ez det beñere andik kenduko; baño batez ere afigaria da **amabigaren** eskeintza, **Eskeintza Aundiya** deitzen zayo, ona emen:

Nere Biotzeko efukitasunak eskeintzen du, bederatzi ilabeteko lenengo ostiraletan, bat utzi gabe, Komunioa artzen dutenai, eriotza on bat izateko grazia, ez dira nere asefean ilko, ezta ere nere Sakramentuak artu gabe eta ordu artan nere Biotza izango da beren kaya.

Or dezu bada, nere Jose Luis maitea, zein edefa, ta zein aundia dan Jesusen Biotzak egiten digun eskeintza.

Ea bada, utzi itzatzu betiko afokeriak, ez bestiak diyoten gauzai leku eman, ta ez nuke nai zure lagunak tabernan par egiten dielako, olako gauzak zuk egin gabe utzitzea.

Datofen ilabetea asten dira bederatzi lenengo ostiral oyek, ta asi zaitetz zintzo-zintzo, ortan ezagutuko det kristau leyal ote zeran edo ez.

Zure eskutitzen zai nago ta agindu beti.

Donosti'ar Gabriel A.

LAZTASUN GURIA

Morkotsak azalean
arantz zofoztzak dauzka,
bařengo oi legunean
bi-iru gaztain guri
ta otamuřo latzak
mutuřetan lilia
agertzen digu beti
samuř eta ori.


bizitzako arantzak
Jaunak eman bezela
jasaten ba'daki,
emengo arantz uřen
guritasun neuřgea
emango dio Berak
gozo ta ugari.

Zubigar.

Pasai Antxo.

Eloři zulakořa
aldia etortzean
edonork ikusten du
lař tartean txuri;
sasi lakafa ere
txori kabi ezitsuz
ařunt samurtzen dala
edozeņek daki.

Eultza bildurgafia
ezpata asko artean
ezti-jario dala
iņork ez zalantzik;
ta gizonari ere






A'rosarioa

Moderato

Agurtzen zai - tu - gu Ma - ri - a,

O A - ma




gu - ziz ez - - ti - - - a!

Maite de - gu

Zurekin



Je - sus. gure E - - fege an - - - di - - - - a.



II Zu Efegina Ama zera,
Efege dezu Semea;
Jainko Seme Efegearen,
Agur, oi Ama maitea.

III Zu zaitu zu Jainko andiak
Guzietatik autatu,
Emakume guziak baño
Geiago zaitu goratu.

IV Zuregandik sortu izan da
Munduan gizon Jainkoa,
Zeruan Jainko Aitagandik
Sortzen dan Seme Jainkoa.

V Birjiña, Jainkoaren Ama,
Aingeruen pozkaria,
Gizonen ere Ama zera,
Satanen garailaria.

VI Gu pekatari oen alde
Otoitz egizu zeruan;
Beti gal'bide aundietan
Bizi baigera munduan.

VII Iltzerakoan bereziki
Lagun gaitzatzu, Maria!
Zure bitartez, erdisteko
Zeruetako gloria.

Anai-areba onak.

Aita batek bazituen bi aur, Martix eta Terexa, eta ume oso txintxo ta esan-gileak bai ziran, aita oso maite zituen ta bein batean pozaldi bat eman nai izan zien.

«Enetxoak, esan zien goiz eder batean, osabaren gana joan bear degu gaur baratze zoragafi bat badu osabak eta antxe jostatuko zerate ederki zuen lengusuekin. Banoa soñeko befia jaztera ta bereala etofiko naiz befiz.»

Martix pozez txoraturik ori entzutean, jauzika (saltoka) asi zan gela guzian barna, eta oarkabeen, mai gañean zegoen pitxar eder bat jo ta lufera bota zuen ta miña puska egin.

Bere afeba Terexa makurtu zan bereala luferañi ta pitxar-puskak bilitzen asi zan. Orduantxe ain zuzen ere sartu zan aita. «Ea, Terexa, zer egin dezu or? galde egin zion asafe samaf.

«Aitatxo, esan zion ikaraturik Terexak, aitatxo, ez esafetu.

«Ez, erantzun zion aita, ez naiz asafe; baña begira, emen etxean pitxar ori autsi dezun bezela beste ainbeste egin zenezake besteren etxean ere eta ofegatik ezin zaitezke gurekin joan.»

«Bai, pozik geldituko naiz etxean, esan zuen nexka txintxoak, baña ez asafetu bada, oitatxo.»

Martix'ek, bere afebaren ontasuna ikustean biotza samurturik, negafari eman zion, aitaren aufera joan zan ta esan zion: «Aitatxo, nik autsi det pitxara, ez Terexak; nik gelditu bear det beraz etxean.»

Orduan aita, bere aufen biotz ona eta elkafi zioten maitasuna ikusirik, poztu zan biziki, eta biok besarkatzen zituela esan zien: «Nere aur maite kuñunak zerate biok, eta biok joango zerate bai nerekin.» Orduko aien pozaldia!

Ofen onak izan bear lukete elkafen aldera anai-afeba guziak.

URTSUYA



LEIRE⁽¹⁾

II



EIRE'ko Anaitegiak, berekasa utzirik, sakaildurik, eta alde askotatik lufera etoririk, neketan dirau zuti. Orma (pareta) zapartatu aietan tartakak botatzen dituzte beren zañak eta untzak bere efo befiak; non-nai daude zuloak; oiek dira ontza ta muskafen estalpe. Au izan zan ganbara, beste ura batzartegia, onemen zan maitegi edo bazkaltokia. Ofa sukaldeak ondoan. Gela sapaidun ontan artaldeak biltzen dira orain. Sar zaitzte lurpeko luze oietan ta ikasiko dezute nola-koak ziran Anaitegiko ardangelak.

Ibiltokiak, lotegi, lantegi ta, biltegiak guziak nasten dituzte beren ondarak, ondar, mutu ta aundi izanak eta garai obegotaz itzegiten digutenak. Ofa lur jotzen sendotasuna, eta betiko ziruditenak azkenetan!


Baena iluntzen duten oroiopenok utzirik, goazen elizara; au Jaungoikolari eskefak zuti dago-ta. Burni-esiz itxirik dago elizatariko safera. Elizataripean ate-aufea itxura askoz jantzia da. Lege Zafeko ta Lege Befiko gertara batzuek, abere, pisti ta irudipenezko itxura asko daude griña askoren irudia emateko. Guzien buruan Zeruratzalea dago grekafen eran bedeinkapena ematen.


(1) Leire'z ZERUKO ARGIA'ren 102 gafen zenbakian, azkeneko Garagafillan nik egindako salean zenbait itz ez-egoki ba-ziran eta nere lanaren euskeratzaleak atsegin artzen omen du, uts oiek bereak dirala zuei adiraztean. Lenengoa, *peñantzean* egiña deitzea, *ostraleka* edo *efoma'ko* zubiaren kera duenari; bigafena, maku erdiebakia'ri *ziriantzekoa* deitzea, oraindik askok bidegabe esaten dioten eran. Nai al du irakurleak Erdiko Mendetako efomakera eta gotikera deitzen ziran egikera oien befirik?

Efomakeraren aufetik eta bere gai izan ziran bisigodotar, asturiar eta mozarabeafena. Oiek erabili zuten *peñantzekoa* (1^ogoa) eta *ostralekantzekoa* (2^o-gafena). Euskal-efiaren gelditzen al da egikera aue-tako aztarnarik?—Ortaz ezte orain itzegin nai.

Efomakera onela deitzen da, batez ere eromatafetatik datofealko; artatik artu zituen *ostralekantzeko* makoa, *sapaia*, elizaren oñarietako itxura ta beste apaingari asko.

Beste edergari asko sortaldetik etofiak ditu, batez ere Bieantzakeratik. Azkenean gotikera (gotico) deituko deguna, efomakeraren zabalpen bat izan da. Mako erdiebaki edo zañen guzuketari eskefak, sapai puska aundi baten astuntasun (pisu) guzia zain oiek asten diran lau mutufetara jexiazten da.





Leire'ko eliza bafendik.

Eliz bafenen sarturik begieztatu dezagun bere egikera. Iru tenoretako egikerak nabari zaizkio: abelarte (abearte) nagusiaren sapaia XIV. gafen mendekoa dirudi, baño ormarik geienak mako erdiebakia baño lenagokoak dira ta elizaren buru aldeak afeagoko itxura du oraindik.

Elizak abelarte bat du zabalean, lau befiz luzean eta ezta saferako aberastasunik azaltzen. Abegañak mufitz samarrik ditu ta zurezko olak daude, egazti beren lepo elkarfein gurutzatuz ederturik.

Buru aldea bere iru abearte estuekin, bere itxura ta lan moldakaitz eta mufitzarekin, argi gabe ta edergafi ufia-ekin, beste gañerako

guzitik bereizten da; bestelako ertilarien lana ua ta esku latzagoz egiña.

Buru aldetik safera duela ta onen azpi guzia afeapatzen duela dago elizpea.

(1) Lau abelarte luzean eta beste lau ditu zabalean elizpeak. Elizaren buru aldeak iru abelarte bai ditu; bi oso mearrik baztafetan eta erdian bat; erdiko au elizpean bitan berezia dago, onela sendogoa izateagatik; eta goien elizan iru abelarte esan degunak gurutzatzen dituzten beste biak, bean lau egiten dituzte. Elizpeak abegañetan ezpada, ez derama edergafirik eta aietan izugafiak eta ar-lan basak. Ango iluna iya ilun kokortua da, ta orain elizpe ori ain bea dalako, anga atea itxiko balitzaio bati, gutxi bearko luke, ilobian bizirik sartu dutela siñesteko. Onela dago Napafoko efegen ilfia.

M^{ar} F. A.

(1) Auilak ortzitzeko (ilai lur-emateko) izaten zan.



¡Ongi etori'!

1) «Ongi etofi» gure artera
Gure Aita on maitea;
Zu ikusteko deseyoetan
Dago emengo jendea:
¡Ongi etofi! esaten dizut
Biotza pozez betea,
Zoriontasun gozoena da
Gurekin Zu ikustea.

— —

2) Usoak dauka bere ametsa
Egaka beti airian,
Erle txikiyak goize goizetik
Iraulkatzea lorian;
Itsas-oratzak ipar aldean,
Afayak beriz urpian;
Gure ametsa, Zu etortzea,
Artzeko gure artian.

— —

3) Txoriyak dauka kabi txiki bat
Bere umiak artzeko,
Loriak berriz usai gozoa
Biotzak eramateko:
Jangoiko berak biyali zaitu
Gure animak zaitzeko,
Artalde ortan bizi nai degu
Gero zerura juateko.

4) Lañoak iges egiten dute
Goratzian iguzkia;
Gure zentzuko iluntasunan
Ixuri, Jauna, argia:
Ba daki ongi berak daukala
Biotz bakoitzan etxia,
«Ongi etofi», zurekin dator
Jangoikoaren pakia.

— —

5) Artzai zuur bat etofi zaiku
Jangoikuaren eskutik,
Edatu naiez gure biotzan
Zori on-ona bakatik;
Biotza lafi ateratzia
Ezdegu guk nai emendik,
«Ongi etorri» ematen dizut
Biotza pozez beterik.


— —

6) Gure biotzak eman nai dio
Jaunari honra munduban,
Kristau zintzoak bear gerala
Daukagu beti goguan:
Jauna, zurekin egon nai degu:
Gu beti zure onduan:
Guztien ordeaz ematen nizuke
Musu bat zuri eskuban.

Begi-Beltx.



¡Ikasi!... ¡Ikasi!...



I—Joxe biguri mutil alpefak ez u eskoiara juu nai; nai du jostatu, ari tiraka ardi, auntz eta txoriak.




IV—Erle gaxuak sumatu dute laxter beren etsaitxoak; eta agudotxo zozoztu dute bakoitzak bere miztoa.



II—Alpefak ez du gogopen onik; ezta ere Joxe bigufik, bere ariak eztu, bai, uzten tente dagoan adafik.




V—Joxe toñolo, iges dijua bññan erleak atzetik; txapela aidera bota du baño, ez orde erleak gañetik.



III—Beien adafak, auntzen kiralak, etziran naikoa arentzat; bere biziko ari-kozkofaz jotzen du erle-ontzi bat.



VI—Joxe bigufi afika-zale ikas zak orain noiznaiko; ongi ibiliak ezтик okefik, alper, gaiztoak betiko.



II ez ditekean Eliza.

Efoma'ko Eliza ez diteke il. Ala dio protestante batek. «Igandero, dio berak, > ikusten det nere etxetik nola joaten diran katolikoak beren elizetara. Oitura > dala esango du norbaitek, baño ezta oitura bakafik; badakite Jaunari zof zaion > gauza dala ta ez lirake pozik geldituko, ori bete gabe. Efoma'ko Eliza ez dite- > ke il, ume ta gazteak, oraindño bezela azitzen baditu. Zazpi urteko nme kato- > liko batek urte askoko protestanteak baño geyago daki erligioko gauzetan. > Gañera katolikoan erlijioa ezta igandetakoa bakafik, baizik egunerakoa. Pozik > daudenean, biotza saminduta daukatenean, beren lan guzietan badakite Jaun- > goikoarengana joaten; jayotzen diranetik il arteraño Jaungoikoa beti berekin > dute. Naikoa da Eliza ofek egin dituan santuak ikustea, iñoiz ilko ez dala esateko».

Prantziko katolikoak Lourdes'en

Beste urtetan bezela joan dira Prantziko katolikoak Lourdes'era. Aurtan egin duten peregrinazioa 55'gafena da. 15 trenetan bildu dira alde guzietatik katolikoak, gaxo asko berakin batean ekafirik. Jaunari prozesioan lagundu ziotenak baziran 40. 000. Sendagile ugari ere izan dira; diotenez, baziran 350.

Onelako egun edefak igaro ta gero befi iluna etofi da katoliko oyen biotzak samintzera. Lourdes'ko Artzai txit agufgaria Ama Birjiñak beregana eraman du, Lourdes'en egin duan lan 'guziaren saria artzera. Bere ilerietara bildu dira 10. 000 katoliko, 600 apaiz ta gotzai asko. Tarbes'ko eliz nagusian lufa eman diote.

Kansu mixioko befi belzak.

Joan dan Mayatzean Europa ta Amerika'ko je kintsuak beren tresnaz ezagutu zuten izugafizko lufikara izan zala nunbait. Ta egia zioten. Ara zer idatzi duan gero ango mixiolari batek: Mayatzeko 25'gafen eguna izan da noski mixio onek izan duenik ikaragafiena, neretzat munduaren azkenengo eguna zan. Eriotzaren atzapafetan egon giñan mixiolariok, baña Jaunari eskefak, iges egin genion. Munduko beste aldetan ezta lufikara onen befirik izan ta ezta afitzekoa; telegrafoa ta beste bide guziak ondatu dizkigu lufikarak eta. Il diranak izango dira 10. 0000'fik gora bai. Munduan izan diran zoritxaf audienetakoa da au ta munduko efi guziak nolabait arindu beaf lutekena. Eriotzak eraman ez dituanak, ezer gabe galditu dira; Mixiolariok pozik lagunduko genio teke, baño nondik atera sendagaiak, janariak ta dirua?

Mixiolariantzat etxea.

Vichy izena duan ur-toki ospatsuan mixiolariak badute beren etxea ta beren osasunari begiratu dizayokete utenean.

Gobernuak berak emanda, mixiolariak izan zuten eskubide ori 1921'gafen urterafio. Gobernu Elizarekin asafetu ta alde betera utzi zuanean, eskubide ori kendu zitzaizoten mixiolariak.

Guda edo gerra ondoan, Txina'n 13 urte egondako mixiolari batek jaso zuan orain duten etxea. Of egon ditezke beren osasunari begiratzeko beaf dituzten egun guziak, alde guzietatik etofitzen diran mixiolariak.

Bertan jafi dute mixiotako gauza-erakusketa (exposición) ta ori ikusten dute-nak, badakite, etxeari laguntzeko, zerbait uzten. Gafiara, astean bi aldiz, bere burua sendatzen dagoan mixiolari batek itz egiten du ikusi ta ikasi dituan gau-zetaz. Azkenean, mixiolariak beste urak baldin beaf badituzte, Vichy'ko etxe onek ematen die beaf duten guzia.

Apaiz gaxoentzat ere bai.

Gaitzepelak (tisis) Prantzian gaitz asko egiten du, batez ere gazte artean. Maia guzietako gazteak jotzen ditu. Asko, apaiz izan aufean, beste asko, apaiz egin befiak, erortzen dira, gaitz ofek jo ta. Gero beste aldetik apaizak guxitzen ari dira. Ofegatik Kardenal ta Arzobispoak erabaki dute guzi oientzat sendate-ki aundia egitea.

Aita Santuak oso edefki artu du asmo edef au ta bedeinkatu du. Badaki diru asko beaf izango dutela etxe ori egiteko; ofegatik berak ere nolabait lagun-tzeafen, eman die miloi bat frankotan.

Napafoak esker onez Prantzisko Deunari.

Ba dakizute gure irakurleak Napafoko uri buruan oroitafi bat Asis'tar Pran-tzisko santuari goratzeko asmoetan genbiltzela. Oroitafi ori goratu zaio. Ta ikusgafia da. Beste batean emango degu bere argazkia, gure irakurleak ikusi dezaten.

Napafoak Prantzisko deunaganako esker onez goratu dio oroitafi eder ori. Napafoko uri buru ontan urte askoz izan ziran iru auzo nagusien artean pakeak egin zuetelako egin zaio oroitafi ori. Argatik gure Aita, berak Gubio n sotildu (mansotu) zuen otsoari itz gozagafiak esanez bezala ageri da oroitafi ortan.


Irudi au agertzeko, bere biziko jaia egin da Iruñian eta esan gezezake Napafo osoan. Iruñen bat asi zan Agofaren 23'an Iruñiako Lorentzo deunaren elizan. Burgos'ko Eliz-Nagusiko Magistralak Felix Afaras Kanonigo Jaun G. Ag. egin zituen iru egunetako mintzaldiak. Txoraturik utzi ditu bere entzutzaileak gure mintzalari napa bikain onek.

Ilaren 23'an Napafo'ko Gure Aitaren maitaletatik milaka ta milaka etofi zi-ran Iruña'ra. Irugafendafen Senidetza geienetatik beren estandartearen ondotik irugafendar sail edefak zetozen. España'ko Ministroen Buruzagia ere egun or-tarako etofia zan Iruña'ra eta ofi ongi etofia ematera etofiak befiz Ayunta-mentu eta somatenak eta guziak gure Aitaren irudi befiaren agefaldian, antxe genituen. Iruña'ko Gotzaiak bedeinkatu zuen orogafi edefa, eta Primo de Ribera jaunak bear zuen agertu, artarako eskura zuen lokafia ez ba-litzaio ausi. Irudia agertu zutenean ozte guztia txaloka asi zen pozaren-pozez.

Zaragoza'ko Kanonigo Guallar jaunak itzegin zuen guztiz eder.

Irugafen Ordenetako 50 estandarte ikusi genituen, aien artean Napafoko euskaldun efietako geieneak eta baita Donosti'ko Irugafenadafena ere, ango irugafendar sailtxo berezi batekin.

Bakanetan ikusten da Iruñian atzeko gure jai ortan ainbat afotz. Aintza Asis'tar Prantzisko deunari!



BIOTZA ABESLARI.—Maruri'tar A. Eräimun Buruñurduna. Jaungoiko Zaleren irarkolan—2'50 pezeta bakoitza.

Izen polita aukeratu du liburu onen egileak, izen polita ta egoki egokia. Zergatik? Liburu onetako neurtitzak biotz-biotzetik irtendakoak ta biotzaren ispiñua dira: itz batean BIOTZA ABESLARI, kantari agertzen zaigu: neurtitz bizi-biziak dira.

Si vis me flere, dolendum est primum tibi ipsi.

Au egin du aita Maruri'k, oregatik ezta afitzeko nere biotza liburu polit ori irakurtzean samurtu izatea.

Iru sailetan banaturik dago liburua.

Lerengoa JAINKOTIAK izenekoa: sail onetan atsegin geiena eman didate: *Austerë'k*; oso edera, *ausarta* mamitsua dalako; iketan egiteak indar aundia ematen dio. *Kabian aña*, oso polita. «*Neketako Amari*» polita benetan. «*Eriotza*» ikaragarria.

Bigafen zatiak LANDAKO LORET XOAK du izentzat. Sail onetan oso lore usaitsuak arkitzen dira, Asis'tafaren eskolako usai gozo-gozoa dutenak.

NASKALDIA deitzen du egileak irugafen saila. Emen ere bitxiak topatuko dituzu, irakurle.

Oartxo bat egin nai nioke egileari. Neurtitz batzuk latzak dira belafarentzat; bear bada pixkat leundu-ta asko irabaziko luteke.

Ta orain eskaeratxo bat Aita Eräimun'i. Zure neurtitzak eñiaren artean zabalduz on aundia egin lezaketela uste det. Egin itzazu ba olerkien batzuk euskal-abesti zafen eresiaz abesteko era edo neñrian, eta era ontako asko egiten ba dituzu, obe.

Auñera! Ez aspertu, Aita Maruri, lan egiteaz Euskaleñiko *animen* onerako.

A.

